

Genero identitateak ulertzen. Gizarte eta hezkuntza ikuspegietatik hurbilketa



Hiru alderditatik landuko da gaia: generoa gizarte eraikuntza dela ulertarazi, trans identitateek dituzten oztopoak identifikatu, eta zailtasunei aurre egiteko proposamenak gauzatu.

Eka. 26 - Eka. 27 2025

Kod. G09-25

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 26 - Eka. 27 2025

Kokalekua

Letren fakultateko Gradu Aretoa

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

- ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Genero identitate ezberdinetara hurbilketa egin nahi da ikastaro honen bidez, betiere hezkuntza eta gizarte ikuspegietatik. Horretarako, hiru ataletan banatu da ikastaroa:

- Zer da genero identitatea? Atal honetan, generoa gizarte eraikuntza dela ulertzea bilatuko da. Horretaz gain, genero identitateak historian zehar izandako bilakaera azalduko da, eta garai ezberdinetako genero identitate ez normatiboen adibideak aurkeztuko dira.
- Trans identitateek modu osoan eta askean garatzeko aurkitzen dituzten oztopoak: Saio honen helburua trans identitateek egunerokotasunean dituzten oztopo eta zailtasunak identifikatzea izango da. Hasiera batean eskola eremuan jarriko da begirada (guztiok ematen ditugulako urteak hezkuntza eremuan eta honek duen indar sozializatzaileagatik), ondoren beste zenbait eremutara hedatuz: familia, egoera geopolitikoa, MST, etab.
- Etorkizunari begira: Azken saio honetan, esperientzia errealak ezagutzeaz gain, eremu ezberdinetan aurkitu daitezkeen oztopo edo zailtasunei aurre egiteko edota irtenbidea bilatzeko proposamenak egingo dira.

Helburuak

Genero identitatea zer den ulertzea.

Trans errealitateak ezagutzea.

Trans pertsonen egunerokoa dituzten oztopo ugarietaz jabetzea.

Trans errealitateetan eragiten duten faktoreak ezagutzea.

Gizarte aldaketa bat bultzatzeko asmoz, eremu ezberdinetan aurrera eraman daitezkeen aldaketak/ekimenak proposatzea.

Lankidetzak



Programa

2025-06-26

09:00 - 09:15	Erregistroa / Registro
09:15 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Aurkezpena Olatz Etxebarria Perez de Nanclares UPV/EHU
09:30 - 10:15	“Aurre-ezagutzatik jakintza berriak eraikitzen” Olatz Etxebarria Perez de Nanclares UPV/EHU
10:15 - 11:15	“Genero Identitatearen Ibilbide Historikoa” Olatz Etxebarria Perez de Nanclares UPV/EHU
11:15 - 11:45	Atsedena
11:45 - 12:30	“Genero Identitatearen aztarnak jarraitzen” Olatz Etxebarria Perez de Nanclares UPV/EHU
12:30 - 13:30	“Genero Identitatea garapen etapetan” Olatz Etxebarria Perez de Nanclares UPV/EHU

2025-06-27

09:00 - 09:30	Erregistroa + Lehenengo saioaren inguruko hausnarketa + Eguneko plangintza
09:30 - 10:30	“Trans pertsonak eta familiak” Beatriz Sever Egaña
10:30 - 11:30	“Trans pertsonen eremu ezberdinetan aurkitu ditzaketen oztopoak identifikatzen” Olatz Etxebarria Perez de Nanclares UPV/EHU
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	Mahai ingurua: “Trans errealitateetara gerturaketa, Trans pertsonen testigantzak lehen pertsonan” Beatriz Sever Egaña Olatz Etxebarria Perez de Nanclares UPV/EHU Trans pertsonen testigantzak lehen pertsonan
13:00 - 13:30	Cierre

Zuzendaritza



Olatz Etxebarria Perez de Nanclores

EHU

Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakaslea eta ikerlaria da, eta Psikodidaktikan doktorea: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak, Euskal Herriko Unibertsitatetik, Harvard Unibertsitatean nazioarteko egonaldiarekin. Magisteritzan Diplomatua, Lehen Hezkuntzako Gradua eta hiru aipamen ditu: Heziketa Fisikoa, Atzerriko Hizkuntza Ingelesa eta Pedagogia Terapeutikoa. Hezkuntza Berezian gehiago sakontzeko asmoz, Orientazio eta Esku-Hartze Psikopedagogikoan Masterra burutu zuen. 17 urteko lan esperientzia du Hezkuntzako arlo ezberdinetan, Euskal Herrian, Estatu Batuetan eta Asian. Bere ikerketa-lerro nagusiak honako hauek dira: Genero-Identitatea, Hezkuntza Premia Bereziak, Hizkuntza zein Kultura Anitzeko Hezkuntza-Inguruneak eta Heziketa Fisikoa. Inpaktu handiko aldizkari zientifikoetan argitaratu du, eta hizlaria izan da nazio barneko eta nazioarteko kongresuetan. Aniztasunaren eta benetako inklusioaren defendatzaile sutsua da.

Irakasleak



Olatz Etxebarria Perez de Nanclores

EHU

Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakaslea eta ikerlaria da, eta Psikodidaktikan doktorea: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak, Euskal Herriko Unibertsitatetik, Harvard Unibertsitatean nazioarteko egonaldiarekin. Magisteritzan Diplomaturak, Lehen Hezkuntzako Gradua eta hiru aipamen ditu: Heziketa Fisikoa, Atzerriko Hizkuntza Ingelesa eta Pedagogia Terapeutikoa. Hezkuntza Berezian gehiago sakontzeko asmoz, Orientazio eta Esku-Hartze Psikopedagogikoan Masterra burutu zuen. 17 urteko lan esperientzia du Hezkuntzako arlo ezberdinetan, Euskal Herrian, Estatu Batuetan eta Asian. Bere ikerketa-lerro nagusiak honako hauek dira: Genero-Identitatea, Hezkuntza Premia Bereziak, Hizkuntza zein Kultura Anitzeko Hezkuntza-Inguruneak eta Heziketa Fisikoa. Inpaktu handiko aldizkari zientifikoetan argitaratu du, eta hizlaria izan da nazio barneko eta nazioarteko kongresuetan. Aniztasunaren eta benetako inklusioaren defendatzaile sutsua da.



Beatriz Sever Egaña

Bea Sever sexologoa

Bea Sever Egaña kazetaria, sexologoa eta Suizidologian aditua da. Chrysallis EH eta ondoren Naizen elkartearen kidea da. Naizeneko arreta arduradun bezala, bere seme-alaben errealitatea ulertzeko prozesuan familien bide laguna izateaz gain, arlo guztietako profesionalak laguntzen ditu: irakasleak, medikuak, hezitzaileak, begiraleak, kirol arlokoak... Nazioarteko oihartzuna izan zuen “Zakila duten neskak eta bulba duten mutilak” kanpaina eraman zuen. Naizeneko gazte taldeko koordinatzailea ere bada eta gazte transexualentzako hitzaldiak, ekintzak, udalekua, etab. antolatzen ditu, baita neska-mutil hauek entzun eta lagundu ere. Transexualitateari buruzko formazioak ematen ditu eta jardunaldi, kongresu eta antzekoetan parte hartu ohi du. Hainbat lege eta protokoloen lan-mahaietako partaidea izan da. “Tránsitos” liburuaren kolaboratzailea izan da eta une honetan “Otros tránsitos” liburua prestatzen dabil, transexualitatearen bizipen anitzak islatzeko.



Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-26 ARTE
UIK euskaraz	74,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	63,00 EUR
Matrikula exentzioa	52,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	63,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	63,00 EUR
Euskalategi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	63,00 EUR
Elkar	63,00 EUR
ASPEGIko bazkideak	63,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2025-06-26 ARTE
UIK euskaraz	74,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	63,00 EUR
Matrikula exentzioa	52,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	63,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	63,00 EUR
Euskalategi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	63,00 EUR
Elkar	63,00 EUR
ASPEGIko bazkideak	63,00 EUR

Kokalekua

Letren fakultateko Gradu Aretoa

Unibertsitateko Ibilbidea, 5. 01006 Vitoria-Gasteiz

Araba